

**2024RA LUZATUTAKO 2023KO
AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA**

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE
ANTOLAMENDUA

Programa: 414100 TOKIKO ONGIZATEA
HOBETZEA LANDA-EREMUAN

**LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023
PRORROGADO PARA 2024**

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 414100 MEJORA DEL BIENESTAR
LOCAL EN EL ÁMBITO
LOCAL

PROGRAMAREN MEMORIA

MEMORIA DEL PROGRAMA

I. MEMORIA

Programa honetan biltzen dira Sailaren aurrekontuaren kontura Arabako Lurralde Historikoko landa garapenerako elkarteei ematen zaizkien dirulaguntza izendun batzuk, hain zuzen ere beren jardun eremuan beren eskualdeko herritarrei zerbitzuak egiteko ematen zaizkienak.

Lehia librearen araubidean toki erakundeek zein haietan bizi diren pertsona fisikoek etxebizitzak birgaitzeko egiten dituzten ekintzak finantzatzeko ematen diren dirulaguntzak ere programa honetan sartzen dira.

**II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN
GAUZATZE-MAILA**

Arabako Foru Aldundiko Sailak 2023-2027 legegintzaldirako zehazten dituen Diputatu Nagusiaren ekainaren 30eko 152/2023 Foru Dekretuaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, Lurralde Oreka eta Lurralde Antolamenduaren Sailak, besteak beste, toki finantzaketari buruzko eginkizunak eta eskumenak betetzen ditu, bai toki erakundeenak, bai Arabako Lurralde Historikoko elkarte batzuenak.

Hori dela eta, programa honen bidez 2024rako luzatutako 2023ko aurrekontuan esleitutako dirulaguntza zuzenak eman zaizkie Arabako Lurralde Historikoko landa garapenerako elkarteei, zeinek beren jardun eremuan eskualdeko herritarrei zerbitzuak ematen baitizkie.

Landa garapenerako elkarteekin egindako sei hitzarmenak berriro dira, eta 92.560,00 euroko zuzeneko dirulaguntzak eman zaizkie.

Bestalde, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 30eko 491/2024 Erabakiaren bidez, toki erakundeetan

I. MEMORIA

Este programa recoge la concesión de diversas subvenciones nominativas existentes en el presupuesto del departamento, a las diversas Asociaciones de Desarrollo Rural del Territorio Histórico, que prestan servicios, en sus diferentes ámbitos de actuación, a los habitantes de sus respectivas demarcaciones comarcales.

También se incluye la concesión de subvenciones, en régimen de libre concurrencia, conducentes a la rehabilitación de vivienda en entidades locales, tanto para dichas entidades locales como para las personas físicas residentes en ellas.

**II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS
OBJETIVOS PROGRAMADOS**

En virtud de lo dispuesto en el artículo 9 del Decreto Foral 152/2023 del Diputado General, de 30 de junio, por el que se determinan los Departamentos de la Diputación Foral de Álava para la legislatura 2023-2027, el Departamento de Equilibrio Territorial y Ordenación del Territorio ejerce, entre otras, las funciones y competencias relativas a financiación local, tanto de entes locales como de algunas asociaciones del ámbito del Territorio Histórico de Álava.

En base a ello, se han concedido subvenciones directas consignadas en el presupuesto del 2023 prorrogado para 2024 para este programa, a favor de las diversas Asociaciones de Desarrollo Rural del Territorio Histórico, que prestan servicios, en sus diferentes ámbitos de actuación, a los habitantes de sus respectivas demarcaciones comarcales.

Se han renovado los seis convenios con las Asociaciones de Desarrollo Rural, concediendo subvenciones directas por un importe total de 92.560,00 euros.

Por otra parte, mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral, 491/2024, de 30 de julio se aprobó la

2024RA LUZATUTAKO 2023KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 10 LURRALDE OREKA ETA LURRALDE
ANTOLAMENDUA

Programa: 414100 TOKIKO ONGIZATEA
HOBETZEA LANDA-EREMUAN

etxebizitzak birgaitzeko jarduketak finantzatzera bideratutako dirulaguntzak emateko 2024-2025erako deialdia onetsi zen, lehia askearen araubidean, bai toki erakunde horientzat, bai haietan bizi diren pertsona fisikoentzat. Deialdiaren zenbatekoa 540.000,00 euro da.

2024ko ekitaldian, deialdi hori ebatzi da Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 23ko 817/2024 Erabakiaren bidez, eta 7.029,44 euro eman zaizkie toki erakundeei eta 532.970,56 euro pertsona fisikoei. Guztira, 540.000,00 euro dira, eta 46 jarduketa diruz lagundu dira. Gainera, emandako dirulaguntzen barruan, birgaitzeetatik 20k eskaera gehigarria zuten energia efizientziaren arloko jarduketengatik.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2023 PRORROGADO PARA 2024

Departamento: 10 EQUILIBRIO TERRITORIAL Y
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO

Programa: 414100 MEJORA DEL BIENESTAR
LOCAL EN EL ÁMBITO
LOCAL

convocatoria 2024-2025 para la concesión de subvenciones, en régimen de libre concurrencia, encaminada a la financiación de acciones conducentes a la rehabilitación de vivienda en entidades locales, tanto para dichas entidades locales como para las personas físicas residentes en ellas, por un importe de 540.000,00 euros.

En el ejercicio 2024 se ha resuelto dicha convocatoria por Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral, 817/2024, de 23 de diciembre, concediendo 7.029,44 euros a las entidades locales y 532.970,56 euros a personas físicas, alcanzando la cifra de un total de 540.000,00 euros y subvencionándose 46 actuaciones. Además, dentro de las subvenciones concedidas, 20 de las rehabilitaciones incluían solicitud adicional por actuaciones en materia de eficiencia energética.